



ESKOLA KIROLEKO PROTOKOLOA 21-22

1. PREBENTZIO ETA HIGIENE NEURRI OROKORRAK

- a. 6 urtetik aurrerako ikasle guztiek musukoa jantzita eraman beharko dute.
- b. Sartzerakoan eta ateratzerakoan gel hidroalkoholikoarekin garbituko ditugu eskuak.
- c. Beste kirolari batzuekin kontaktuaren mailaren arabera, atsedenaldiak egingo dira aldiro kirolariek eskuak garbitzeko.
- d. Materiala erabili ondoren desinfectatuko da.

2. MUSUKOEN ERABILERA

- a. Musukoa uneoro erabili beharko da, osasun-agintariek ezarritakoaren arabera.
- b. Jarduera egiteko musuko kendu behar izaten duten uneetarako musukoari soka bat jarri beharko zaio zintzilikatu ahal izateko, beti ere eskura izan dezaten.

3. KONTAKTUA GUTXITZEA

- a. Ekintzak ahalik eta indibidualizatuenak izango dira, pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia mantenduz. Eskaintza egokitu da egoeraren arabera, beste kirol aukerak sustatuz.

4. TALDEKATZEA

- a. Bizikidetza talde egonkorak mantenduko dira. Honako hauek izango dira:

MAILA	TALDEA
HH4	4A/B
HH5	5A/B
LH1	1A
	1B
LH2	2A
	2B
LH3	3A
	3B
LH4	4A
	4B
LH5	5A
	5B
LH6	6A
	6B

5. JENDE PILAKETAK SAIHESTEKO ANTOLAKETA NEURRIAK

- a. Lehenengo ekintza 16:30-17:15/ Bigarren ekintza 17:20-18:10. Oso-oso garrantzitsua da ordutegi hauek errespetatzea, puntualtasuna zaintzea eta ordua baino lehen kiroldegira ez bertaratzea, pilaketak saihesteko.
- b. Sarrera-irteera bideak seinalatuko dira.
- c. Ikasle bakoitzak errespetatu beharko du finkatutako eremuak motxilak, gai pertsonalak (musukoak, botillak, toailak) eta arropak uzteko. Goiko solairuan, zenbakituta daude txokoak, beraz, gelako zenbakia dagoen lekuan utzi beharko da bakoitzaren materiala. Beheko solairuan, espalderak dauden gunean utziko da materiala.
- d. Hemen ekintza desberdinen ordutegiak, kokapena eta sarrera-irteerak:

MAILA	SARRERA	IRTEERA
HH 4	Txikirritmo: PATIOA	Txikirritmo: PATIOA
HH 5	Judo: KIROLDEGIKO SARRERA (NAFARROA KALEA)	Judo: KIROLDEGIKO SARRERA (NAFARROA KALEA)
LH 1	KIROLDEGIKO SARRERA (NAFARROA KALEA)	KIROLDEGIKO SARRERA (NAFARROA KALEA)
LH 2	KIROLDEGIKO SARRERA (OTEITZA)	KIROLDEGIKO SARRERA (OTEITZA)
LH 3	KIROLDEGIKO SARRERA (NAFARROA KALEA)	KIROLDEGIKO SARRERA (NAFARROA KALEA)
LH 4	KIROLDEGIKO SARRERA (NAFARROA KALEA)	KIROLDEGIKO SARRERA (OTEITZA)
LH 5	KIROLDEGIKO SARRERA (NAFARROA KALEA)	KIROLDEGIKO SARRERA (NAFARROA KALEA)
LH 6	KIROLDEGIKO SARRERA (NAFARROA KALEA)	KIROLDEGIKO SARRERA (OTEITZA)

Ekintzen kokapen orokorra hau izango da:

- Futbola: Kiroldegiko goiko kantxa.
- Saskibaloia: Kiroldegiko beheko kantxan.
- Eskubaloia: Kiroldegiko goiko kantxan.
- Kirol anitzak: Goiko edo beheko kantxa.
- Joku-jolasak: Kiroldegiko goiko/ beheko kantxan.
- Txikirritmo: Psimokotrizitate gelan.
- Dantza: Xakeko gelako sarreran elkartuko dira.
- Judo: Kiroldegiko tatami gelan.

6. ALDAGELAK

Debekatuta dago aldagelak erabiltzea.

7. KIROL PRAKTIKARAKO EDUKIERA

- a. Kiroldegiko 1. Kantxa: 390
- b. Kiroldegiko 2. Kantxa: 190
- c. Psikomotrizitate gela: 20
- d. Xake gela: 6
- e. Tatamia: 16

8. MATERIALAREN ERABILERA

- a. Ur botilak: kirolari bakoitzak bere botila eraman beharko du, izena nabarmen ikusteko moduan jarrita.
- b. Ezin da jan.
- c. Mukizapiak edo antzeko elementuak ere; guztiak indibidualak izango dira.
- d. Kirolariek asko izerditzen badute, bakoitzak toaila bat eraman.

9. ESPAZIOAK ETA INSTALAZIOAK AIREZTATZEA

- a. Instalazioko atek zabalik mantenduko dira, espazioaren aireztapen naturala areagotzeko.
- b. 5 minutuko tartek egongo dira bi txanden artean.